

Hormigas uharteak.

Hormigas uhartediko betoizko oinarri biribila duen itsas-argiak 1869. urteko hilen eguneko ezbeharraren gogorazten du. Gau hartan, hego-haize gogorrek beste itsasargi bat suntsitu zuen, toki berean zegoen oinarri laukiduna. Ondorioz, itsasargizainaren emaztea, hiru seme-alaba eta laguntzailea hil ziren.

Hormigas uhartedia Palos lurmuturraren pareko uhartexka multzoa da, kostaldetik bi milia eta erdi kokatua. Azaleko harkaitz biluziak bizitzaz estaltzen dira ur azpian; hemen, komunitate bentoniko anitz eta ugari garatzen dira, lehenengo metroetan, batik bat, argiak fotosintesia ahalbideratzen duen sakoneran.

Ezin konta ahala arrainek ustiatzen dituzte baldintza horiek.

Baita itsas izar geldo batek ere, harkaitz baten gainean zain...

...eta itsas-suge bihurria ehizatzeke asmotan irteten da alga artera; bere gorputzaren moldaera berezia dela-eta, badirudi ahalegin handirik gabe egiten duela igeri: bere burua korrontek eramaten utzi besterik ez duela egin behar. Bere kobazulorantz doa; hainbeste bizitzaren artean ezkuturik datzan ontzi-krosko batean kokatzea erabaki du.

1906. urteko abuztuaren 13an, *Sirio* lurruntzia hiru zatitan hautsi zen, eta hemen, Fuera-ko hondoetan sakabanaturik gelditu ziren bere zatiak. Inguru hau 1995ean Erreserba Integral izendatu zuten.

Izaki bizidunek estalitako burdinen artean, baimendutako urpekari gutxi batzuk galdutako bizitzen lekuko izan litekeen piezaren baten bila ari dira.

Ez itsasargiak ez nabigatze mapek ezin izan zuten itsasontzia hondoratzea saihestu. Sorpresa eta beldurraren artean, ontzi italiarraren lurrun-galdarek eztanda egin eta ontziaren bizkar osoa leherrarazi zuten.

Ontzi horren bidez goseteari ihes egin nahi izan zioten 800 lagunetatik 200 batek ez zuten Ameriketara joatea lortuko. Emigratzaile italiar eta espainiarrak ziren, asko legez kanpo itsasoratuak, gero hondoratzearen errudun izango zen eskifaiari emandako dirutzaren truke. Eskifaiak ontzitik ihes egin zuen, bidaiari pilatuak bertan utziz.

Orain, kroskoa estaltzen duen bizitzak zoritxarrez edo diruzalekeriagatik galdutako bizitza haiei omenaldia egiten die.

Hormigas uhartedian, hondoetako harkaitzek alga, koral, belaki, izar eta arrainei ostatu ematen jarraitzen dute, eta *Sirio* ontziaren burdinak animalientzat babesleku eta substratu bentoniko dira. Palos lurmuturreko urpeko ekosisteman, pieza bat gehiago. Ekosistema honetan sare trofikoaren oinarria korrontek ekarritako planktonak osatzen du.

Ez zen lehen hondoratzea, ezta azkena ere. Ezbeharraren eta gorentasuna aldizkatzen dira Hormigas uhartedian.